

EUSKARA ARDATZ

Euskal Herrian 101 hizkuntza hitz egiten al dira?

Aimara, taiwera, wolofera, yukatakera, susuera, tamiler, poloniera, nederlandera, japoniera, hindiera... 98ra iritsi arte. Proiektua 2015ean jarri zen abian Donostia 2016 Olatu Talkaren barruan. Ondoko webgunean ari dira informazioa biltzen:

101.ahotsak.eus

Nola idatzi memoria bat?

Nola idatzi behar ditugu testuko aditz guztiak, lehenaldian? Batzuk bai beste batzuk ez? Kontakizunak bat etorri behar du hiztuna edo idazlea kokatzen den momentuarekin.

[Albiste osorik](#)

Sormenapp, umeentzako euskarazko ipuinak

Euskara hutsean dagoen haurrentzako aplikazioa da. Haurrek beren kasara moldatzeko marrazkiak eta irakurri edo entzuteko ipuinak daude.

[Albiste osorik](#)

30 urtetako bilakaera soziolinguistikoa aztertu eta erronka berriak zehaztu dituzte

EUSKARAREN
BILAKAERA
SOZIOLINGUISTIKOA
(1981-2011)

**Transmisioa eta gaitasuna, portaera
linguistikoaren motibo subjektiboak, eta
mintzajarduna: Bilakaera eta aurrera
begirako erronkak**

1981 eta 2011 urteen arteko euskararen bilakaera soziolinguistikoa aztertu eta aurrera begirako erronkak zehazteko lana egin dute hainbat adituk.

Iñaki Martínez de Luna, Mikel Zalbide eta Xabier Erizeren zuzendaritzapean, hurrenez hurren, hizkuntza-gaitasunean, hizkuntza-erabileran eta iritzi eta jarreretan izandako bilakaera aztertu da.

Zuzendari bakoitzak azken 30 urteotan bere ardatzean eman den bilakaeraren deskribapena egin du. Halaber, egungo egoeratik ikusita, etorkizunean (datozen 10-20 urteetan) lorgarriak diren erronken eta ikerketa aldetik garrantzitsuenak diren gaien deskribapena egin dute.

[Albiste osorik](#)